

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HEZKUNTZA SAILA

5462

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 5ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2023. urtean irakaskuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deia egiten duena.

47/1993 Dekretuak (1993-04-02ko EHAA) irakasleen HE1 eta HE2 hizkuntza-eskakizunak ezarri zituen. Gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduak (1994-01-26ko EHAA) Irale programaren ebaluazioa eta hizkuntza-eskakizunen azterketetako edukia eta forma arautu zituen. 1995eko apirilaren 10eko Aginduak (1995-05-11ko EHAA) eta 1998ko urriaren 22ko Aginduak (1998-11-05eko EHAA) azterketaldi mota desberdinen kalifikazio-sistemak ezarri zituzten. Era berean, apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak (2005-04-14ko EHAA) HLEA hizkuntza-eskakizuna sortu eta arautu zuen Hezkuntza Bereziko lan-legepeko heziketa-langileentzat.

Ebazpen honen xede nagusia da irakaskuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen 2023. urterako deia egitea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen xedea da irakaskuntzako HE1, HE2 eta HLEA hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen 2023. urterako deia egitea, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan.

2. artikulua.– Hezkuntza Sailak, 2023. urtean, hizkuntza-eskakizunen deialdi itxi bat egingo du, Iralen liberatuta dauden ikasketariei zuzendua, eta deialdi ireki bat. Deialdi horien matrikulazio-baldintzak Ebazpen honetan zehazten dira. Deialdi itxiak bi azterketaldi izango ditu, bat ekainean eta bestea irailean.

3. artikulua.– Deialdi irekian matrikulatzeko epea 2023ko urtarrilaren 16an irekiko da eta hil horretako 25ean itxiko. Deialdi itxiko ikasketarien matrikulazioa, berriz, urtarrilaren 25ean hasi, eta otsailaren 3an itxiko da.

4. artikulua.– Hizkuntza-eskakizunen deialdi itxian, ikasketari hauek matrikulatuko dira: 2022-2023 ikasturtean Irale programan dagokien amaierako ikastaro mota egiteko liberatutako ikasketariak; zehazki, U2koak eta 3000koak, HE1erako; U3koak edo 5000koak, HE2rako; eta 4000koak, HLEArako. Horretaz gain, kasuan kasuko azterketan matrikulatzeko aukera izango dute liberazio-aukerak agortuta dituzten irakasleek, baldin eta azterketa-eguna baino lehen 375 orduko txanda osoa tarteko etenik gabe ikasi izana egiaztatzen badute.

5. artikulua.– Hezkuntza Bereziko HLEA eskakizunerako, zehazki, honako hauek matrikulatu ahal izango dira deialdi irekiko epean: Gizarteratzeko edota Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari titulazioa edo baliokidea dutenak, bai eta Fisioterapeuta, Gizarte-langile, Lanbidezko Terapeuta eta Zeinu Hezkuntzako Interprete titulazioa dutenak ere. Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Bereziko lan-legepeko heziketa-langile aritzen direnak eta arlo horretan indarrean dagoen ordezkapen-zerrendan daudenak.

6. artikulua.– HE2ko deialdi irekirako, berriz, honako hauek ere matrikulatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan edo pribatu baimenduetan 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan zerbitzuak egin dituzten irakasle eta heziketa-langileak, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroetakoak barne. Era berean, matrikulatzeko aukera izango dute beste autonomia-erkidegoetan irakaslanean ari diren karrerako funtzionarioek edo berriro laneratzeko eskubidea dutenek eta EAeko irakaskuntza publikoko indarreko ordezkapen-zerrendetan dauden irakasleek. Halaber, parte hartu ahal izango dute gutxienez egun batez ikastetxeren batean lan egin duten profesionalek, 2021eko irailaren 1etik matrikula-egunera arteko epean.

7. artikulua.– HE1eko deialdi irekirako, aldiz, honako hauek matrikulatu ahal izango dira: 5. eta 6. artikuluek eragindako pertsonen gain, irakaslan edo heziketa-lanerako beharrezko titulazioa dutela erakusten dutenak. HE1eko azterketari-nahiek maisu-maistra, lizentziatu, diplomatu, graduatu, Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari izan beharko dute, edota irakasle eta heziketa-lanerako balio duen tituluaren jabe. Izangaiok, maisu-maistrak, pedagogoak, Haur Hezkuntzako teknikariak eta 5. artikuluan aipatutako titulazioak izan ezik, titulazio hauetariko bat izan beharko dute: Bigarren Hezkuntzarako Gaitzeko Master Titulu Ofiziala, Didaktika Espezializazioko Titulua (TED), Pedagogia Gaitasuneko Ziurtagiria (CAPa), edo baliokidea.

8. artikulua.– Arau orokor gisa, deialdi itxian hizkuntza-eskakizun jakin baterako matrikulatzen diren pertsonak ezin izango dira matrikulatu eskakizun horretarako deialdi irekian 2023ko urte berean.

9. artikulua.– Arau orokor gisa, izangaiak hizkuntza-eskakizun bakar batean matrikulatu ahal izango dira deialdi bakoitzaren barnean; alegia, bai deialdi irekian, bai itxian.

10. artikulua.– Deialdi irekian matrikulatzeko, eskabide normalizatua egin beharko da Interneten bitartez, helbide honetan (<https://ikasgunea.euskadi.eus>). Horrez gainera, hezkuntza-administrazioak konstantziarik ez duenean, dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da, Hezkuntza Ordezkaritzan edo aplikazio bidez igo: titulazio akademikoaren, Bigarren Hezkuntzako masterraren edo baliokidearen fotokopiak, eta egindako zerbitzuen egiaztatzea. EAeko irakaskuntza publikoko zein pribatuko langile finkoek ez dute dokumentazio gehigarriak aurkeztu beharko, baldin eta datu horiek Hezkuntza Sailburuordetzan jasoak agertzen badira. Nolanahi ere, sare pribatuko aldi baterako langileen kasuan, edota dokumentazio hori Ordezkaritzan ez dagoen beste kasu batzuetan, interesdunak agiri horiek aurkeztu egin beharko ditu matrikula gauzatzeko. Izen-ematea bide telematikoz egin izanak ez du esan nahi gainerako dokumentazio guztia arau ezarritako epearen barruan aurkeztu behar ez denik.

11. artikulua.– Deialdi itxian matrikulatzeko, Irale programan liberatuta dauden irakasleek eta liberazio aukerak agortu dituztenek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko dute beren matrikula-inprimakia, edo, bestela, dagokion Iraleko irakastegian.

12. artikulua.– Hizkuntza Eskakizunen azterketen ebaluazio-irizpide orokorrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren I. eranskinean ezarritakoak izango dira (1994-01-26ko EHAA). Bestalde, HLEA hizkuntza-eskakizunean apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuan (2005-04-14) ezarritako irizpideak jarraituko dira.

13. artikulua.– Deialdi itxirako kalifikazio-sistema Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko apirilaren 10eko Aginduan ezarritakoa izango da (1995-05-11ko EHAA). Deialdi irekian, berriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko urriaren 22ko Aginduan (1998-11-05eko EHAA) ezarritako kalifikazio-sistema aplikatuko da. HLEAko azterketaren eske-

mari eta kalifikazio-sistemari dagokienez, zati idatzian lehen hizkuntza-eskakizuneko eskemari jarraituko zaio, eta ahozkoan, bigarren eskakizunekoari.

14. artikulua.– Era berean, arau nagusi horiek garatze eta zehazte aldera, Azterketa Batzorde Bateragileak ezartzen dituen orientabideak eta irizpideak bere horretan jarraituko dira. Ahozko probaren grabazioa ofizioz egingo da, azterketaren material-erregistro osagarria eskuratu ahal izateko. Baldin eta azterketariak grabazioa egin nahi ez badu, errenuntzia sinatu beharko du. Izan ere, erabaki hori dela medio, bere ahozko proba ezin izango da birzuzendu, erreklamazioa aurkeztuko balitz.

15. artikulua.– Azterketak egiteko lekuak, egunak eta orduak, bai deialdi irekirako eta bai itxirako, Hezkuntza Sailaren webgune ofizialean emango dira argitara: www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara

16. artikulua.– Deialdi itxira aurkezteko betebeharra duen ikasketariren batek azterketaren idatzizko zatira ezin joana izango balu, eta hutsegite hori behar bezala justifikatuko balu, Euskara Zerbitzuak arrazoi horiek balioetsiko ditu eta ikasketari horri hurrengo deialdi itxian azterketa egiteko aukera eman ala ez erabakiko du. Ezin joana ahozko azterketaren kasuan gertatzen bada, azterketaldi bereko beste egun bat erabiltzeko aukera hobetsiko da. Hurrengo txandarako erreserbaren eskabidea azterketa aurretik egin beharko da edota ezin-etorria gertatu den azterketa-egunetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean.

17. artikulua.– Aurkeztu diren azterketarien kalifikazioak Hezkuntza Sailaren webgune ofizialean emango dira argitara. Bestalde, hizkuntza-eskakizunen bat lortu dutenen datuak Hezkuntza Sailburuordetzako ziurtagirien fitxategian integratuko dira eta pertsona horiek ziurtagiria eskuratu ahal izango dute Hezkuntza Ordezkaritzetan.

18. artikulua.– Lortutako emaitzarekin konforme egon ezean, azterketari orok dauka dagokion idatzizko erreklamazioa aurkezteko eskubidea, emaitzak argitara eman eta hiru egun balioduneko epean, bere kalifikazioa berrikusteko. Horretarako, dagokion Batzordeko lehendakariarengana zuzendu beharko du eta erreklamazioa <https://ikasgunea.euskadi.eus> webgunearen bidez aurkeztu, edo dagokion lurraldeko Hezkuntza-ordezkaritzan entregatu. Azterketa Batzordeak beranduen hilabeteko epean argitaratu beharko ditu berrikustearen ondoriozko kalifikazioak. Era berean, Azterketa Batzordeak gutun pertsonal bidez erantzun ahal izango die zenbait erreklamaziori, egoki irizten badio.

19. artikulua.– a) Azterketetan iruzur egiten edo eragiten duen edozein azterketari, edota bidezko ez diren laguntzak erabiltzen dituen nornahi, prozesutik baztertuta geldituko da eta ordura arteko kalifikazioak baliogabetuta geldituko dira, bere jarduerak sor ditzakeen erantzukizunez gain.

b) Azterketari bat baztertzeko erabakia lurraldeko azterketa-batzordearen lehendakariari dagokio edozein azterketatan, bertan dauden batzordekideen proposamenez, interesdunari entzun ondoren.

20. artikulua.– a) Azterketa-material guztiak –alegia, idatzizko erantzunak, audio grabazioak eta partezko zein guztizko emaitzak– Hezkuntza Sailak gordeko ditu, emaitzak argitara eman eta handik urtebeteko epean gutxienez.

b) Aipatutako materialak isilpean daudela bermatu beharko da, eta ezin izango da horien kopia-rik egin, azterketa-batzordeen balioespen-lanerako eta gainerako zereginetarako ez bada.

2022ko abenduaren 21a, asteazkena

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari ebazpen honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 5a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.